

Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Lehendakariaren “ekidistantzia”

Pribatuan eta publikoan kritikatu izan dut Ibarretxe Lehendakaria; orrialde haue-
tan beraietan ere bai: estatu ustez akon-
fesional batean kargua gurutzearen
aurrean zin egiteagatik, esaterako. Esti-
mu onean dut halere, iruditzen baitzait saiatzen
dela kontsekuente izaten eta agintzen duena
betetzen –askotxotan beraren alderdikoek
beraiek uzten ez badiote ere– eta hori arraro
samarra da, zoritxarrez, gaurko politikaren
munduan.

Lehengo astean, adibidez, Lehendakaritzan
egon nintzen Giza Eskubideen Dekla-
razio Unibertsalaren 60. urteurrena
ospatzeko ekitaldian. Lehendakariak,
besteak beste, oso gauza interesgarri
bat esan zuen: giza eskubideak ezin
direla banatu. Hau da, ezin dugula tor-
tura salatu, ETA erakundearen ekin-
tzen aurrean mutu geratzen garen
bitartean; edota ezin dela, ezta ere,
terrorismoaren kontra oihukatu,
komunikabideak itxi eta alderdiak
legez kanpo uzten diren bitartean.

Behin baino gehiagotan esan ditu
antzekoak Ibarretxek eta, horrexega-
tik, izan da maiz gatazkaren alde bate-
koek kritikatu eta iraindua, *terroristen*
eta *demokraten* aurrean ekidistantzia ez
omen delako onargarria, alegia.

Nik ere gauza bera pentsatzen dudala aitortu
behar dut. Hots, ezin dela ekidistante izan; ezin
dela berdin jokatu indarkeria mota guztien



INIGO AZKONA

aurrean. Izan ere, estatu batek eragindako mota
askotako biolentzia (poliziena, ejertzitoena,
epaileen erabilera maltzurra...) eta herriaren
sektore batek –haien ustez autodefentsan–
burutzen duena ez dira maila berekoak. Estatu
da eskubide guztiak, bakea bera barne, bermatu
beharko lituzkeena; hortaz, askoz larriagoa da
bermatzaile izan beharko lukeena urratzaile
bihurtzea, edozein herri-taldek egin lezakeen
edozein ekintza “biolentzia” baino, etikoki gai-
tzesgarria izan litekeen arren.

Edonola ere, Lehendakariak ez du inondik
inora modu ekidistantean jokatzeko.
Oso lerrota dago alde batera. Beste-
la ezin da ulertu hainbat omenaldi
antolatu izana ETAREN biktimen alde
(eta oso ondo deritzot egiteari) eta
beste aldeko biktimen alde bakar bat
ere ez (nahiz eta askoz ugariagoak
diren eta ideologikoki eta sentimen-
talki hurbilago egon beharko lukeen
beraiengandik). Are txarrago, beraren
poliziak ere errepresiorik basatiena
erabili ohi du alde honetako biktimen
kontra.

Lehengo egunean, adibidez, ni
barruan nengoela, Etxerat-ekoei, hau
da, preso dauden beren senideentza-
ko giza eskubideak berma daitezela
eskatu baino egiten ez dutenei, ez zieten sar-
tzen utzi, gonbidatuak izan ziren arren.

Hau al da giza eskubideak ez banatzea,
Lehendakari Jauna? ■

Lehendakariak ez du modu
ekidistantean jokatzeko. Bestela
ezin da ulertu hainbat omenaldi
antolatu izana ETAREN biktimen
alde eta beste aldeko biktimen
alde bakar bat ere ez

TXANDAN

Joseba Barandiaran



Frantziarra banintz, ez
nioke Sarkozyri boto-
rik emanen. Presidente

izan aurretik ere, banion begien aurrean ikusi
nahi ez hori. Besterik da, nire begitara, orain
emazte duen Carla. Gogoan dut, Aznarato garaian, aipatu
niola iloba zaharrenari *Quelqu'un m'a dit* abesten zuen haren
izena eta hark lortu zidala amaraunean sorgindua ninduen
ahots hark abestutako kanta bat. Orain, Bruni Sarkozy
bihurtu den honetan, disko berriak itzelezko salmentak izan-
go dituela suposatzen dut baina, Nicho president den artean
behintzat, ez ei du beste diskorik aterako. Puxtarriak, Carla.

Carla, Txentxo eta...

Foruerkidegotarra banintz nire
botoa izanen lukeen NaBaiko
Txentxo Jimenez itzuli da Hima-
layatik. Autonomierkidegotar honek ez du foru parlamenta-
ri hori ezagutzen eta inongo kanpainaren barne egon gabe
aitortzen dut: nafarra banintz, Txentxoren dimisioa eskatu-
ko nuke, Vasceuearen Legea aldatzea baino, bere oporrak
hobesteagatik. Eskatu ez, exigitu egingo nuke; bost axola
langile fina, jatorra, goapoa edota bertsozalea den; sorry,
Txentxo. NaBai koalizioa izanik, ordea, Maiorga Ramirezek,
publikoki bederen, barkamena eskatzea hobetsi du. Puxta-
rriak, Maiorga. ■